

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2025eko uztaila

Ostatu-gauak % 2,3ko igoera izan dute Euskal AEko hotel-establezimenduetan 2025eko uztailan, eta sarrerek % 1,5ekoa

Gelen okupazio-maila % 81,6koa izan da eta ADRa edo eguneko batez besteko tarifa 144,5 eurokoa, aurreko urtean baino % 4,4 gehiago

Eustaten datuen arabera, **2025eko uztailan** Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek % 1,5eko igoera izan dute eta ostatu-gauak % 2,3koa, 2024ko uztailarekin alderatuta. Guztira 392.794 sarrera eta 837.143 ostatu-gau izan dira.

Sarreraren % 57,0 eta ostatu-gauen % 57,2 atzerritarrek egin dituzte, sarrerak % 4,5 eta ostatu-gauak % 6,2 igo ondoren. Estatuko sarreraren eta ostatu-gauen kopuruak, bestalde, % 2,2 eta % 2,5 egin dute behera, hurrenez hurren, urtetik urtera.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak eta batez besteko egonaldia. Uztaila 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2025/07	m/m-12 (%)	2025/07	m/m-12 (%)	2025/07	2024/07
EUSKAL AE	392.794	1,5	837.143	2,3	2,13	2,11
Estatukoak	168.896	-2,2	358.580	-2,5	2,12	2,13
Atzerritarrak	223.898	4,5	478.563	6,2	2,14	2,10
Araba/Álava	50.634	-8,6	110.164	-2,1	2,18	2,03
Estatukoak	28.410	-10,4	63.954	-7,5	2,25	2,18
Atzerritarrak	22.224	-6,2	46.210	6,5	2,08	1,83
Vitoria-Gasteiz	37.750	-11,9	86.890	-3,7	2,30	2,11
Bizkaia	182.820	5,2	360.833	3,2	1,97	2,01
Estatukoak	81.371	1,9	162.364	-0,4	2,00	2,04
Atzerritarrak	101.449	8,1	198.469	6,5	1,96	1,99
Bilbao	122.987	7,7	242.100	5,5	1,97	2,01
Gipuzkoa	159.340	0,9	366.146	2,8	2,30	2,26
Estatukoak	59.115	-3,4	132.262	-2,3	2,24	2,21
Atzerritarrak	100.225	3,7	233.884	6,0	2,33	2,28
Donostia / San Sebastian	96.724	-1,6	237.873	0,1	2,46	2,42

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Abuztuaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Araban, 50.634 sarrera eta 110.164 ostatu-gau erregistratu dira, hau da, aurreko urtean baino % 8,6 eta % 2,1 gutxiago, hurrenez hurren. Bizkaian, sarreretan % 5,2ko igoera izan da eta ostatu-gauetan % 3,2koa, eta guztira 182.820 sarrera eta 360.833 ostatu-gau izan dira, hurrenez hurren. Gipuzkoan 159.340 sarrera zenbatu dira 2025eko uztailan, hau da, 2024ko uztailan baino % 0,9 gehiago, eta 336.146 ostatu-gau, aurreko urteko hilabete berean baino % 2,8 gehiago.

Hiriburuei dagokienez, sarreren kopuruak % 7,7ko igoera izan du Bilbon aurreko urteko uztailarekin alderatuta, eta Donostian % 1,6ko jaitsiera izan du eta Gasteizen % 11,9koa. Ostatu-gauen kasuan, Gasteizen % 3,7 jaitsi dira eta Bilbon, berriz, % 5,5 igo dira eta Donostian % 0,1.

Euskadiko AEko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia¹ 2,13 egunekoa izan da 2025eko uztailan, hau da, aurreko urteko hilabete berekoa baino handixeagoa, 2,11 egunekoa izan baitzen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Uztaila 2025

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2025/07	p.p.*	2025/07	p.p.*	2025/07	m/m-12 (%)	2025/07	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	71,5	-0,1	81,6	0,9	144,53	4,4	117,91	5,6
Araba/Álava	65,0	-1,6	81,3	3,3	100,13	10,8	81,42	15,4
Vitoria-Gasteiz	65,7	-3,2	85,7	2,0	88,19	13,8	75,59	16,5
Bizkaia	68,5	0,2	78,4	0,1	118,35	0,7	92,78	0,8
Bilbao	73,2	0,2	82,7	0,3	127,90	-0,5	105,75	-0,1
Gipuzkoa	77,1	0,0	85,3	0,9	185,99	6,0	158,56	7,1
Donostia / San Sebastian	83,2	0,2	90,0	-0,4	230,69	8,7	207,66	8,2

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Abuztuaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzailleen Inkesta

2025eko uztailan Euskal AE osoko okupazio-maila % 71,5era iritsi da plazen arabera neurtuta, eta % 81,6ra gelen arabera neurtuta. 2024ko uztailarekin alderatuta, ehuneko 0,1 puntuko jaitsiera izan da plazen kasuan eta ehuneko 0,9 puntuko igoera gelen kasuan.

Euskal AEn, errentagarritasuna, ADRren edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtzen dena ("logela bakarrik" erregimeneko gela bikoitz bainugeladunari aplikatua), 144,5 eurokoa izan da 2025eko uztailan, eta % 4,4ko igoera izan da, beraz, aurreko urteko uztailarekin alderatuta. ADRa 186,0 eurora iritsi da Gipuzkoan, 118,4 eurora Bizkaian eta 100,1 eurora Araban. Hiriburuei dagokienez, aldeak handiagoak izan dira; izan ere, ADRa 230,7 eurokoa izan da Donostian, 127,9 eurokoa Bilbon eta, azkenik, 88,2 eurokoa Gasteizen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetan, RevPar edo gela eskuragarri bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak 117,9 eurokoak izan dira 2025eko uztailan, hau da, aurreko urteko hilabete berean lortutakoak baino % 5,6 handiagoak.

¹ Batez besteko egonaldiak ez du adierazten Euskal AEra etortzen diren bidaiarien egonaldiaren guztizko iraupena, gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste ematen duten egun kopurua baizik.

Urteko metatua

Urtea hasi zenetik metatutako aldian (**2025eko urtarrila-uztaila**), aurreko urteko aldi metatu berarekin alderatuta, sarrerek % 4,0ko igoera izan dute eta ostatu-gauek % 4,8koa. Zazpi hilabeteko aldi horretan, batez besteko egonaldia 1,96 egunekoa izan da 2025ean; aurreko urteko aldi metatu berean, berriz, 1,95 egunekoa izan zen.

Urteko lehen zazpi hilabeteetan, okupazio-maila % 56,7koa izan da plazen arabera neurtuta, eta % 68,1koa gelen arabera neurtuta. Hortaz, aurreko urteko aldi metatu berarekin alderatuta, ehuneko 0,8 eta 0,9 puntuko igoera izan da, hurrenez hurren.

Informazio-oharra

Hoteletako ETHren erantzun-tasa **% 91,3koa** izan da 2025eko uztailean. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal AEko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62